

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AZAZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Kontzejuaren etxebizitza bat errentan ematea

Azazetako Kontzejuak, 2020ko ekainaren 27an egindako bileran, erabaki du bere jabetzako etxebizitza baten errentamendua esleitzeko prozedura hastea eta errentaria hautatzeko oinarriak arautzen dituen baldintza agiria onestea.

Oinarriak

1. Xedea

Kontzejuaren jabetzako etxebizitza alokatzea (Mediodia kalea, 8; 4 poligonoko 4 katastro lurzatia; 84,59 metro koadro). Etxebizitzak ez du altzaririk.

2. Eskatzaileek bete beharrekoak

Adinduna edo adingabe emantzipatua izatea, gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa izatea eta Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 71. artikuluan legez kontratatzen xedatutako debekuren bat ez duela egiaztatzea.

3. Kontratuaren iraupena

Zazpi urte.

4. Agiriak eskuratzea

Baldintza agiria Arraia-Maeztuko udal bulegoetan (Estacion kalea, 13; 01120, Maeztu) dago eskuragai, astelehenetik ostiralera, jendearentzako zerbitzu orduetan, alegia, 10:00etatik 14:00etara, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo 15 egunetan.

Era berean, Azazetako Administrazio Batzarraren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman.

5. Eskaeren aurkezpena

Eskaerak Arraia-Maeztuko udal bulegoetan (Estacion kalea, 13; 01120, Maeztu) aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jendearentzako zerbitzu orduetan, alegia, 10:00etatik 14:00etara. Horretarako, hamabost egun izango dira, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun baliogabean ere aurkeztu ahal izango lirarteke.

Postaz ere aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, bidalketaren ezarpen-data egiaztatu beharko da postetxean, dagokion frogagiriarekin batera, eta egun berean kontratazio-organoari iragarri beharko zaio proposamena bidali dela. Horretarako, postan aurkeztu izanaren frogagiria bidali beharko da posta elektronikoz (arraia.secretaria@ayto.araba.eus).

Aipatutakoak bete gabe, ez da proposamena onartuko, ezta epez kanpo jasotzen bada ere. Dena den, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denetik 10 egun igarotakoan, ez da onartuko inongo eskaintzarik.

6. Fidantza

Bi hileko errentaren baliokide den behin betiko fidantza jarri beharko da eskudirutan.

7. Esleipen irizpideak. Lizitazio oinarria

— Preziorik onena: 90 puntu.

Urteko errenta hiru mila eta seiehun eurokoa izango da, eta hileko epeetan ordainduko da. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da eskaintza.

— Etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko konpromisoa hartzea: 10 puntu.

8. Eskaintzak irekitzea

B gutun-azalaren (eskaintza ekonomikoa) eskaintzak jendaurrean irekiko dira Azazetako Kontzejuaren Etxean (Herri honetako Molino plaza), proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita, hamargarren eguneko 15:00etan.

Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean irekiko dira. Eta egun eta ordu horretan ezingo balira ireki, jakinaraziko zaie lizitatzailaiei eguna eta ordua aldatu direla.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azazeta, 2020ko uztailaren 13a

Errejidore-lehendakaria
RAÚL RITUERTOTURRADO